

Belarrak

Mirari Martiarena

Udako lehen egun beroarekin batera egiten ditugu etxean belarrak. Arratsaldea arrastaldea eta sardea eskutan hartuta pasa dugu biok. Zeri buruz idatzi ez nekiela esan diot eta azkar bota dit erantzuna irribarrez: «Niri buruz!». Gai asko nituen buruan. Guztiek batera alde egin dute eta belar pizarrak bildu ahala berari buruz idatziko ditudanak ere biltzen hasi naiz.

Jaio nintzenean, denek oso neska polita nintzela esaten zuten; aitaren berdin-berdina. Berak azkar atera zuen ondorioa: alaba polita bada, aita ere bai. 30 urte beranduago bere antza dudala esaten diotenean, pasadizo bera kontatzen du eta seguru nago orduan bezalaxe egiten duela irribarre.

Umore fin-fineko gizona da gure aita. Tabernan lan egiten zuenean «baserriko txipiroiak» eskaintzen zituen eta bezeroen barre algara lortzen zuen. Kotxe berriak eramaten dituzten kamioiak ikusita zergatik galdetzen genion umetan eta «ordainsaria ez ordaintzeko» esaten zion. Iaz, bera min hartuta zegoelako, nik ekin behar izan nion ardi jezteari lehen aldiz nire bizitzan. Berak instrukzioak ematen zizkidan, barre egiten zuen, hala moduz moldatzen bainintzen eta «eskerak ez duzun ardi esnetik bizimodua atera behar» esaten zidan irribarrez. Agian horregatik gustatzen zaizkit hainbeste txisteak, hitz jokoak eta umorea.

Lehen aldiz zinera amarekin nobiotan hasi zenean joan eta lo hartu zuen. Sarre-

ra alferrik ordaindu zuela-eta ez zen gehiago itzuli “Loreak” estreinatu zuten arte. Ume txiki bat bezala joan zen zinera, ilusioz beterik. Sekuentzia bateko protagonista izan zen eta bera bezain harro ibili ginen etxekoak, pantaila handian azaltzen zela jakinda.

Belarretan pasako dugu astea eta urteroko erritualak egingo ditugu: pizarrak bildu, traktorearen atzetik ibili eta azala erre. Erdi brometan esan dit berari buruz idazteko eta behingoagatik broma serio hartu diot. Belarrak ontzeko eguraldi ona eta beroa behar dira. Niretzat eguzkiaren alde onena itzala izan arren, belarrak egitearen alderik onenetako bat aitarekin denbora pasatzea eta bere lanetik ikastea izaten da. •

Apologetak

Koldo Sagasti

Prentsako agerkariek hizki larritan ateratu dute azken orduotan Gasteizen gertatutako erailketa matxistaren albisteak. Hiltzaileak berak aitortu omen du biktima akabatu eta zatikatu ostean poltsetan sartuta bota zituela gorpuzkinak Zadorra ibaira. Ez dago zantza izpirik, ezta espekulaziorako zirrikiturik ere. Horregatik, hain zuzen ere, bereziki deigarria da “El Correo”-n, gaizkilearen ekintza zuritu nahian, kaleratutako izenburua: «Atxilotutakoaren auzokoei ezin dute gertatutakoa sinetsi, ‘mutil zintzoa zen’». Testuan erasotzailearen eta bizilagunen arteko harreman adeitsua go-raipatzeaz gain, alkohol eta drogekin lotutako arazoei egozten diete gertatutako-

aren erantzukizuna, mutil zintzoa ez baitzen, nonbait, bere ekintzen jabe. Horrelako astakeriak irakurtzeak sumina eragin dit. Baina ulergarria egin zait berri emalearen sinadurari erreparatu diodanean. Albistearen izenpetzen duen kazetaria ezaguna da hirian bere aurreiritzi islamofobo, misogino eta klasistei informazio itxura emateagatik. Sona handiko berri asmatu bat baino gehiago dago bere curriculumean, kaleko arropaz jantzita igerilekuetan bainatu omen zen emakume musulmanarena, kasu.

Duela astebate, egunkari berean, eskandaluzko lerroburua eskaini zion festa esparru batean gertatutako bortxaketa saiatzerari: «Ertzaintzak mesfidantzaz hartu

du Aranako jaietan gertatutako sexu erasoagatik salaketa».

Ondorengo lerroak erasoaren bi biktimen epaiketa dira: halako orduetan parrandan zebiltzala, hurrengo egunera arte ez zutela Ertzaintzaren gana jo... eta polizia txosten konfidentzialetan baino irakurri ezin daitezkeen datuak, betiere, susmoaren itzala erasotakoen gainean zabaltzeko. Horrelako titularrak ez dira halabeharrez edo utzikieriaz sortuak, aitzitik, ideologia bati men egiten diote.

Terrorismo matxistaren aurrean erantzukizunaren jomugan emakumeak jartzearabaki politikoa da, eta horrelako kazetariak dira egunez egun ideologia hori elikatzen dutenak. •